

Pedro Aginagalde zenaren izena zeraman ikastetxea Bordari izendatzeak ika-mika piztu du.

Alkate ohi baten izena, baztertua

JUANMA SARASOLA

Herriko agintari baten izena goiti beheiti, polemika sortu da azkenaldian Hondarrribian. Horri erantsi behar zaio Udalaren osoko bilkurak joan den asteko asteazkenean eztabaidatutako -eta gero onartutako- puntua: Talaia LHI Ikastetxe-ko Pedro Aginagalde eraikinaren izenaren aldaketa. Ikastetxe-ko Batzordeak berak hartutako erabakia, Bordari izena jartzea, berretsi zuten udal taldeek, PPren abstentzioarekin, eta PSE-EEk bozketan parte hartzeari uko egin ondotik. Hala, EAJren, EAren, ezker abertzalearen eta Ezker Batuko ordezkarien botoekin onartu zen erabakia. PSE-EEko zinegotzi Josu Alvarez haserre agertu zen, «izena aldatzeko eztabaidan parte hartzeko aukerarik ez» zuelako izan.

Alvarez esanetan, «dagoeneko hartutako erabakia» eraman zuten udal bilkura. «Prensan ikastetxearen eraikinaren izen berria agertu da udal bilkuran erabaki baino lehenago, *de facto*-ko ekintza burutu gisa, eta Aginagalde zer izan zen eztabaidan sartu gabe, gu izena aldatzeko eztabaidatik kanpo sentitu gara».

Aitzitik, ezker abertzaleko zinegotzi Miren Legorburuk gogorazi zuen bera ikastolako juntako presidente izan zelarik, 1993-1994 ikasturtean, Bordari izena jartze-

«Pertsona batzuei balorea emateko, ez dago zertan beste batzuei kendu»

JOSU ALVAREZ
PSE-EEko zinegotzi

ko proposatu zutela. Alabaina, urte horretan ez zuten Fernando Arto- la idazle hondarrribiarraren (1910-1983) goitizenaekin ikastetxea izendatzea lortu. Hala, orain arteko izena, Hondarrribiko alkate izandako Pedro Aginagalderena, atxiki zuen eskolak.

Oraingo alkateak, Aitor Kerejetak (EAJ) udal bilkuran azaldu zenez, ikastetxe-ko Eskola Kontseiluan izena aldatzeko aukera eztabaidatu zuten ikasleen gurasoekin. «Gainera, erabakia hartu aurretik, Aginagalde zenaren semideekin, zehazki alabekin, hitz egin genuen, errespetuagatik. Familiak esan zuten ulertu egiten zuela izena aldatzeko asmoa, nahiz eta aitaren oroitzatza ongarde. Esan ziguten eskolari izena jarri zitzaionetik bertatik [1972an] ez zutela nahi izan aitaren izena ikastetxeari jartze-

rik...». Alkatearen hitzetan, izen aldaketa udal bilkura eta inaugurazio ofiziala -berritzatze lanen ondotik- egin aurretik prentsan agertu izana ez dago beraien esku.

Baina Alvarez ez zuen amore ematen. Alkateari erantzun zion ezin zela «halako gairik udal bilkura» eraman. «Horrez gain, pertsona batzuei balorea emateko, ez dago zertan beste batzuei kendu. Eta Aginagalderen familiak nola erantzungo zuten ba, dagoeneko hartutako erabaki baten aurrean... ulertu, ulertu... ez dakit ba!». Hala, PSE-EEko zinegotziaren iritziz, ikastetxearen izena aldatu gabe jarritzaioekin Bordari izena beste eraikin edota kale bati.

Legorburuk zehaztu zuenez, herriko bi idazle omentzea eta gogoratzea da izen aldaketaren helburua. «Dagoeneko Satarka haur hezkuntzako eskola dago, eta egokira ikusten dugu beste [Pedro Aginagalde] Bordari izendatzea». Klaudio Sagartzazu olerkariak (1895-1971) berak idatzeko erabiltzen zuten izengoitia zen Satarka, Sagartzazutar Kauldi gisa sinatzeko moduaren akronimoa.

Frankismo garaiko alkate

Pedro Aginagalde Oiartzabal (1917-2005) zazpi urte eta erdiz izan zen Hondarrribiko alkate, frankismoaren azken urteetan. Zehazki 1966ko urriaren 19an hartu zuen herriaren agintea, Jose Ramon Fernandez de Casadevante-ren lekukoa hartuta, eta 1973ko martxoaren 31n eman zion lekukoa Mercedes Iridoiri. Diktadura garaian ohiakoa zen alkate eta zinegotziak buruzagi frankistek berriak aukeratu eta izendatuak izateko, besteak beste, Familiaburuetako Tertzioa eta Sindikatuetakoa Tertzioa izeneko arloetatik. Aginagalde sindikalista-orduan *sindikatu bertikal* frankista zen onartutako bakarra-izaki, arlo horretatik aukeratu zuten frankistek.

Lehenagotik, hainbat urtetan



Ezkerrean Fernando Arto 'Bordari' idazle eta kazetaria, eta eskuinean Pedro Aginagalde alkatea. HONDARRIBIKO ARTXIBOA

Sindikatuetakoa Tertziotik zinegotzia eta bigarren alkateorde izan zen Aginagalde.

Alkate zela jarritako izena

Josu Alvarezk gogora ekarri duenez, «frankismo hasieran urtebete inguru preso» egon zen Aginagalde, «Fronte Popularrari ustez laguntza eman ziolako». Alvarezk berak, joan den asteko udal osoko bilkura, dokumentazio gisa, eraman zuten *Incidencia de la II República en Hondarrribia* ikerketa lana (Eunate Beperet Olaberrirena). Hor zera dio Aginagalderen

gainean: «Esaterako, Pedro Aginagalde eta bere anaia Ondarretako [Donostia] kartzelan preso egon ziren ia urtebete, zer gertatuko zitzaien jakin gabe, norbaitek salatu baitzuten Fronte Popularraren aldeko Batzordeari laguntzeagatik. Ez zuen deusetarako balio izan haien argudioak, hau da, *Batzordeari egoerak behartuta eta beste aukerarik eduki gabe lagundu behar izan ziotela esateak*».

Ez dago argi nor salatu zituen, eta, dena den, bitxia da *gorri* edo gutxienez *susmagari* etiketa izan arren -frankisten eta herriko sala-

tari nahiz kolaboratzaileen begietan- gero frankistek beraiek alkateztarako izendatu izana. Guk dakigula, behinik-behin, ez dago gertaera edo daturik Aginagaldek, alkate gisa, ekinbide zapaltzaile eta faxista eraman zuela frogatzeko.

Orain Bordari izena hartuko duen ikastetxeak -Talaia ikastetxearen zati bat- 1972ko urriaren 25eko udal osoko bilkuran hartu zuen Pedro Aginagalde izena. Arteen alkate zen Aginagalde bera, baina bilkura horretan oportetan zen, herritik kanpo. Manuel Garmendia Duinatek hartu zuen, bitartean, agintea.

Handik 33 urtera, 2005eko azaroan (otsailean hil zen), Aginagaldek alkate bezala egindako lanaren laburpena ekarri zuen *Hondarrribia* aldizkariak, 171. zenbakian: «Alkate izan zen zazpi urte eta erdian ekintza asko burutu ziren Hondarrribian. Horien artean, gaur egun Bidasoako Pasealekua den hormaren eraikuntza da. Luzeraz 175 metrokoa, ia egunero euzeriz gainezka betetzen zen aldeabesteko sortua izan zen. Gainera, Benta Zaharreko karroa, Arroka eta Foru kalea, San Pedro, Zuloaga, Matxin de Artzu, Bidasoa Ibilbidea, Sabino Arana eta Zumardiko asfaltatze lanak. Azkenik, Jostaldi Pilotalekua eta Hondartza Futbol Zelaia ere bere garaian eraiki ziren».

BORDARI IKASTETXEAREN INAUGURAZIOA

Pedro Aginagalde izenaren ordezkari Bordari izena hartuta, eta hainbat hila-betetan lanengatik itxia egon ondotik, maiatzaren 23an ofizialki inauguratu zuten Talaia institutuaren azpiko ikastetxe berria. Besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ordezkari Arantza Laka egon zen inaugurazio ekitaldian, bestelako agintari eta ordezkari politikoekin eta ikasleen guraso nahiz irakasleekin batera. Berritze lanek 1,5 milioi euro kostatu dute. Talaia LHko zuzendaritzak gogor lan egin du berrikuntza proiektua aurrera eramateko eta lanek irauten zuten bitartean klaseak eta jangelak ahalik eta eragozpen gutxien izan zituzten. Dena den, ikasleak Satarka, Biteri eta Puntaleko ikastetxeetan egokitu behar izan dituzte langileak obretan ari ziren bitartean. Arazorik handiena jangeletakoa izan dela azaldu dute Bordariko arduradunek.

Baserritar Etorbideko (Akartegi auzoa) ikastetxeak hazkunde nabaria izan du azken urteetan. 1996an 600 ikasle bazeuden, gaur egun 900 ikasle daude, 2-12 urte bitartekoak. Ttikienak (2-3 urtekoak) Satarkan aritzen dira; 4-5 urtekoak eta Lehen Hezkuntzako lehenbiziko ikasturtekoak Biterin, eta Bordarin 3.etik 6. mailarakoek ikasten dute. Nera-beek, aldiz, malda patartsua igo behar izaten dute, Talaia instituturaino.



IDASOA

INSTITUTO DE FORMACIÓN PROFESIONAL SUPERIOR
GOI-MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO INSTITUTUA
Elizatxo 10 - 20303 IRUN (Gipuzkoa) / Tel.: 943-66 60 10 - secretaria@fpbidasoa.org

Ereduak:
A, D eta Eleanitza

Erdi Mailako Teknikaria

- **Elektrizitatea:**
 - Instalazio elektriko eta automatikoak
- **Elektronika:**
 - Kontsumorako ekipu elektronikoak
- **Mekanika:**
 - Mekanizazioa
- **Zurgintza:**
 - Arotzeriaren eta altzarrien neurria egindako fabrikazioa eta instalazioa (**eleanitza**)

Goi Mailako Teknikaria

- **Elektrizitatea:**
 - Instalazio elektroteknikoak
- **Elektronika:**
 - Produktu elektronikoaren garapena
 - Telekomunikabide eta informatikako sistemak
- **Mekanika:**
 - Fabrikazio mekanikoko produktzioaren programazioa (**eleanitza**)
 - Proiektu mekanikoaren garapena
- **Zurgintza:**
 - Arotzeriako eta altzarigintzako produktuen garapena (**eleanitza**)
- **Eraikuntza:**
 - Hirigintza-proiektuen eta topografia eragiketen garapena

AURRETIKO IZEN-EMATEA: Ekainaren 12a arte





